

ATARIAN SOLAS BI

Fermin Leizaolaren liburuarentzat, *Euskalerriko artzaiak* *

Edozein erri bezala, Euskalerria ere ari zaigu aldatzen. Bere izakera eta ezikera beti berritzen dijoazkigu. Ikusgune batzuek ordea geldiro, besteak azkarki.

Liburu onen gaiak ere —abelzaintzak, alegia— aldaketa auen ulerpideak aski adierazten dizkigu. Bainan bere ibilaldi luzean *iraunkor* ageri ditu zenbait puska eta ikuspegi. Aipa ditzagun auetako batzuek bederen.

Euskalerrian zear ba-zebiltzan leen-aroetan ainitz betizu, mendibei, auntz eta pottoka basati. Orduko gure arbasoen zeregin bat iizi auek atxematea izan zen. Oraindik ordea ba-ditugu betizuak zenbait tokitan (Goizueta'n, adibidez) eta ezagutu ditugu Izaspi-mendin, Aralar'en, Leiza'ko mendietan eta Larrune'n ere.

Iizi oriek eskuperatzea *uxaeizaren* bidez egiten da, otsoak bezala. Paleolitos-aroan gure arbasoak egin oi zuten eiz-mota, alegia. Uxaeizean jardun oi dira oraino eiztari-taldeak gure usategietan, sare, satar eta makilen («bumerang»-en) bidez, usoak berenganatzen. Iizien eskuperatze *iraunkorra* au ere.

Artzaingoari (batez ere udakoari) dagozkion lafeak ba-ziran leen-aroetan. Lexe-mendin eta bere inguruetan, Ori'n eta bere alboetan, Irati'n, Lindus-aldean, Sorogain'en, Auza'n, Argibil'en, Sayoa'n, Larrun'en, Ayako-arria'n eta bere inguruetan, Belarzinketa'n, Orin'en, Aralar'en, Andia'n, Urbasa'n, Entzia'n, Aizkorri'n, Oiz'en, Gorbea'n, Gibijo'n, etab. Or zebiltzan abelzainak beren abereekin. Oraindik ere berdin. Ara or euskal-ezikeraren ikusgune *iraunkor* bat.

Leen-aldietan gure lurralde au errilurra zan geientsu. Orain ere errilur asko degu Euskalerrian. Toki auetan batez ere eta leen-aroetako saroietan eraikiak ageri dira maiz gaurko artzaien bizilekuak. Ori da beste oitura *iraunkor* bat.

Belardi guztiak ez dira larreleku. Siatsak eta *mandobelar* («Centaurea jacea») izeneko belar-mota ematen duen lurra ez dira egokiak ardientzat, kaltegarriak baino. Artzaiak ez dituzte toki oriek maite.

Altxubide askoz zearkatua dago Euskalerria. Batzuek leen-aroetatik eldu zaizkigula dirudi. Adibidez, Aizkorri'tik Entzia'ra bitarten daukaguna, San Adrian artzuloa, Zalduendo, Kruzamendi (muñoa), Aizkomendi (trikuarri oso aipatua), Morumendi (muñoa) eta San Juan elizañoa bere egaletan dituala. Bi larreleku eta bi trikuarri talde —*Urbia* eta *Legaire*— elkartzen ditu bide onek: leen-aroko eta gaurko bi saroi-zelai, alegia.

Gibijo'ko eta Arrato'ko larre-lekuak eta trikuar-taldeak ere elkartuak daude, erdibidean Anda'ko trikuarriak dituztela.

Ola, *zotola*, *txabola* edo *etxola* izeneko aterbe xeak dira goietako saroietan artzainak dauzkaten bizilekuak. Errilurretan eraikiak ba-dira, erria dute jabe.

* Orrialdeak 7-12, Donostia: Etor. 1977.

Orregatik, oraintsuarte, artzainak ezin estali zezakean teilaz bere etxola, teila bakar-jabetzaren ezaugarri dalako. Ori ere luzaro Euskalerrian iraun duen oikundea.

Abeltzainen tresna eta lanabesak aspaldiko idurian eldu zaizkigu. Adibidez, adarrezko kutxarroak eta zalgiak, zenbait zurontzi —apatz, kaiku, opor eta txali— eta larruzko bizkarzorroak eta zurdazko burusiak, egurrezko zildaiak, matxardak eta sardakak, esnea erretzeko txukunarriak, etab.

Abeltzaintza ez da beraz gaurkoa. Ezta berarekin loturik dabiltzan zenbait oikunde ere. Esate baterako: artzainak, otsoen bildurrez, beren ardien ondotik beti ibili bearra, artzanoa erabiltzea, ardiak gauero etxola-ondoko artegian biltzea eta eltzarria, sua eta zuzia, otsoak izitzeko, gauetan gertu edikutzea. Otsoak galdu ziranez gero (oraindik orain) saraien iduria eta artzaiei bizikera eta ezikera aintz aldatu dira.

Lagunalde aundia zebillen beraz, bearrik eta, udagaraian mendietan edo goilarreetan. Eta beren arteko elkarteak —auzolaguntzak, batez ere ille-moxketan, ezbearretan, t.a.— tinko atxikitzen zituzten.

Jai-egunetan eta beste egun berezietan, elizkizunetarako, salerosketarako, jostatzeko naiz jokurako, toki jakinietan bildu oi ziran. Adibidez, elizkizunetarako, Aralar'go San-Miguel'en, Andia'ko San-Adrian'en, Urbasa'ko jauregian, Kodex'ko Andra-Mari'n, Gibijo'ko Santa-Engrazia'n, Entzia'ko San-Juan'en, Aizkorri'ko Gurutzea'n, Larrune'ko Santi-Espiritu'n, Irati'ko Salbatore'n, t.a.

Salerosketarako berriz, Igaratzako zelaian (Donibanez), Urbasa'ko jauregi-ondoan (Santioz), etab. Toki auetan ez ezik beste geiagotan ere bai, *elkartebillerak*; batik-batik, Gibijo'ko Lejazar'en, Legaire'n, Sara'ko Mahain-Harria'n, Samartin'en-harria'n, etab.

Jokurako ba-dira mendietan soro asko *Pilotasoro* edo *Pelotaleku* izenekoak. Esate baterako, Meharroztei-mendian, Garzelako-lepuan (Urepel'en), Elokadi'n, Eihartzeko-lepuan, Sorogain'en, Astakarrika'ko lepuan (Erro'n), Iraxelai'n, Urbiako-lepuan, Urtzelaiko-lepuan (Zugarramurdi'n), Irazako'n (Etxalar'en), Ihizelaia'n (Askain'en), Oyartzun'go mendietan, Ataun'go Murumendi'n, Aralar'go lau pelotalekuak —Baiarrate'n, Trikuarri'n, Unaga'n, Ingiti'n—, t.a.

Abere-zaintza —maiz etxeko guztien eginkizuna delako— azkaziaren tinkagarri gertatzen da. Ez baita ori zainketa utsa. Onekin dijoatz jeizketa, esnearekikoak egitea, arkume-bildotsak azieraztea, illearen moxketa, ango eta emengo larreen billa ibiltzea, gelditur gabe zenbait garaitan ardiai jarrai bearra, jantzien eta onetakoen egitea, lanabes eta tresna askoren landutzea, t.a.

Orregatik artzain-etxatari bakoitzak azkazi-barnean bere ezikeraren oñarri diran jakintzak eta oikundeak ikasten ditu: gizabidea eta onen giltzarri dan Jainkoaren ezagunda, kristau-ikasbidea, gizaldiz-gizaldi sutondo berean iraganaz, eldu zaizkion esaundak, t.a.: bere bizia, gizaki-maillan, sustraitzen duan jaikiunda alegia.

Gogoeta auetan esoinduak datozkigu —maiz ordea ganduak inguratutik—

oikunde asko. Adibidez: Gurutzea, Andra-Mari, San Migel, Sananton eta Santa Barbara abereen begiraletzat ezagutzea; elorria, urritza, lizarra, artaldean ardibeltza, auntza, akerra, autzek eta Basajauna artzaien eta artaldean zaindaritzat onartzea.

Artzai bereakin —guraso eta senideekin— odolez ez ezik etxe berekoa denez ere, loturik azitzen da. Etxea da bere azkaziaren adierazgarri, eta etxea besteentzea eta onen azkaziarekiko lokarriak auste gogor zaio eta beldurgarri. Etxea baitu babesleku eta autzek —arbasoak edota auen iduri eta oroipena— etxearen begirale: arrotz batek, naiz eta izan irelua, ez du an sartzeko eskubiderik bertakoen baimen gabe. Gogai auk gaur aski galduak edo azkenarnasetan.

Alaz ere, bearren eta larri dabilzanentzat artzaiak bear du ate bat iriki. Orre-gatik saroi batzuetan ba-da oraindik txabola bat beti irikia, edota txabolak badeute atarian estalpe bat zabalik, etxe askok oraino duten etartea edo lorioa bezala.

Ez da beraz arritzekoa etxearen erakaspena eta etxetiarrak beragaz duten oroipena *iraunkorra* izatea.

Artzai-azkaziak ba-dituzte beren elkarte-motak: auzuneak (negukoak eta uda-koak), lanetarako eta ezbearretarako elkargoak, etxola bateko bizilagunenak, t.a. Xubero'ko eta Benabarre'ko artzaien *partzuerrak* eta txotxekuen elkartasunak aipagarriak dira gai ortan.

Azkenik exan gentzake artaldea dala askorentzat bizibidearen gai eta oiñarria; baita inoiz bizikeraren esein bakarra ere; maiz berriz etxe baten eusle eta, gañera, leen-aroetako bizikera nagusi baten oiartzun eta adibide.

Laburki aipa ditugun gai auk eta gainerako ikusgune eta xeetasunak ikusten al ditu ausarki liburu onen irakurleak. Ortarako egilleak ibillaldi luzeak eta luzaro egiñak bai ditu Euskalerrian zear. Eskerrak berari.